

ASOCIACIÓN VASCA
DE PERIODISTAS



EUSKAL KAZETARIEN
ELKARTEA

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHEN KAPITULUA

ASOCIACION VASCA DE PERIODISTAS (AVP) -EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEA (EKE)

1. artikulua- Bilbon eratu zen 1987ko urtarrilaren 28an, eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Segurantzako Elkarte Profesionalen Erregistroan eroldatu zen 1987ko otsailaren 3an, 49393 zenbakiarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko kazetaritza-lanbidea ordezkatzeko, koordinatzeko, kudeatzeko eta babesteko organo moduan sortu zen, eta eskumen propioen esferan, bere gain hartzen ditu puntu hauei lotutako eskubide eta betebeharrak guztiak:

- Espainiako Konstituzioaren 20.2 artikulua biltzen duen informazio- eta adierazpen-askatasuna egikaritzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kazetariak ordezkatzeko arlo profesionalean.
- Kazetaritza- eta informazio-deontologia garatzea.

2017ko urtarrilaren 11n egindako ezohiko batzar nagusian, aldatu egin zen haren izen soziala, eta estatutuak onartu ziren, araubide orokorreko elkarte izateko, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeekin bat etorriz.

ASOCIACION VASCA DE PERIODISTAS (AVP) - EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEAREN (EKE) estatutu hauek idatzi dira Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean

ezarritakoak eta elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoa kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutueta 9 eta 10.13 artikuluetan jartzen duenarekin bat etorri.

Elkartea honela gobernatuko da: aipatutako elkarteei buruzko legeek agindutakoak betez; estatutu hauek betez, baldin eta ez badira legearen aurkakoak; elkartearen barruko gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak betez, baldin eta ez badira legearen edo estatutuen aurkakoak; eta Eusko Jaurlaritzak onartutako erregelamendu-xedapenak betez (osagarri izaera soilik izango dute).

FINKATUTAKO HELBURUAK

2. artikulua- Helburuak betetzeko, Espainiako Kazetari Elkarten Federazioan (FAPE) sartuko da Asociación Vasca de Periodistas (AVP) – Euskal Kazetarien Elkarte (EKE).

Hauek dira elkartearen **helburuak**:

- Elkarteko kide diren kazetari guztiak ordezkatzeko, elkartearen helburuak betetzeko.
- Informazio- eta adierazpen-askatasuna bultzatzen duten egitasmo eta jokabideak bultzatzea, kazetaritza- eta informazio-jarduerari lotutako printzipio deontologikoak betetzen direla zainduz eta arreta berezia jarriz enpresa-kontzentrazioetik eratorri daitezkeen arazoei.
- Elkarteko kide diren kazetariei eragiten dieten kontuen berri izatea; kontu horietan esku hartzea; eta elkartekideen izenean burutzea legeek aitortutako eskubide guztiak, kazetari bakoitzari dagozkion eskubideei kalte egin gabe.
- Lehia bidegabea saihestea, eta beharrezkoa izanez gero, haren aurka egitea; kazetaritzari lotutako bateraezintasun-arauak erabat betetzen direla zaintzea, zehazki publizitate-jarduerari lotutakoak.
- Estatutu hauetan ezarritako helburuak betetzen lagunduko duten lege-erreformak sustatzea, eta botere publikoek eskatutakoan, legedian izandako aldaketen berri ematea.
- Aldeetako batek eskatuz gero, kazetaritza-lanbidean suertatu daitezkeen gatazketan bitartekari-lanak egitea.
- Elkartearen interesak eta hango kide diren kazetarienak errazago kudeatzen lagunduko duten zerbitzuak sortzea: juridikoak, laboralak, merkantilak edo asistentzialak.
- Kazetarien nazioarteko beste erakundeekin harremanak sortzea eta sendotzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko profesional horien interesak nola defendatu jakitea, betiere **elkarrekikotasun** irizpidez.
- Harreman, akordio edota hitzarmenak sustatzea Informazio, Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazio fakultateekin nahiz gainerako kolektibo profesionalekin.
- Kazetarien interesentzat mesedegarriak izan daitezkeen gainerako zereginak gauzatzea.

Erakundearen izaera kontuan hartuta, alderdikeria politikoz jokatzeko eskatzen duten barne- nahiz kanpo-jardueretatik kanpo geratuko da elkarte. Agindu horren aurkako ekintza guztiak deusezak izango dira.

Helburu horiek gauzatzeko, elkarteak aukera izango du:

- Helburuak lortzera bideratutako edo helburu horietara iristeko baliabideak lortzera bideratutako era guztietako jarduera ekonomikoak garatzeko.
- Era guztietako ondareak eskuratzeko eta edukitzeko nahiz era guztietako ekitaldi eta kontratuak egiteko.
- Legeekin edo elkargoaren estatutuekin bat datozen era guztietako ekintzak egiteko.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua- Elkartearen egoitza soziala Bilbon dago, Santimami zumarkalea, 37, 4. solairua 6 departamentuan. Batzar nagusiak onartuz gero, elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua- Euskal Autonomia Erkidego osoan gauzatuko du nagusiki jarduera elkarteak.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua- Izaera iraunkorarekin sortu da elkartea, eta 6. kapituluan jartzen duen moduan, ezohiko batzar nagusiak erabakiz gero edo legeetan bildutako arrazoiren bat egonez gero soilik desegingo da. Elkartearen barne-antolaketak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dute, eta erabat errespetatu behar dute pluralismoa. Erabat deusezak izango dira elkartearen oinarrizko eskubideei lotutako edozein alderdi urratzen duten itun, akordio eta estatutuetako puntuak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ORGANOAK ETA ADMINISTRAZIOA

6. artikulua- Kide anitzeko organo hauek gobernatuko eta administratuko dute elkartea:

- Bazkideen batzar nagusiak (organo gorena).
- Zuzendaritza-batzordeak (kide anitzeko zuzendaritza-organo iraunkorra).

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua- Bazkide guztiek osatzen dute batzar nagusia; hain zuzen, hura da bazkideen nahiak

adierazten dituen organoa. Kuotak ordaindu gabe izateak boto-eskubidea galtzea eragingo du. Elkarteko presidentea izango da batzar nagusiko buru, zuzendaritza-batzordeko gainerako kideek lagunduta. Batzar nagusiak hartutako erabakiak akta batean bilduko dira. Idazkari nagusiak idatziko du akta, eta organo horrek berretsi beharko du hurrengo saioan. Gai-zerrendako lehen puntua izango da aurreko saioko akta onartu edo ez erabakitzea. Hauek dira batzar nagusiaren eskumenak:

- Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- Memoria eta urteko kontuak aztertzea eta onartzea eta hurrengo urteko aurrekontua onartzea.
- Zuzendaritza-batzordearen kudeaketa onartzea.
- Estatutuak aldatzea.
- Elkartea desegitea.
- Presidentea, idazkaria eta diruzaina aukeratzea eta kargugabetzea (egonez gero, gobernu batzordeko gainerako kideak ere bai) eta haien lana ikuskatzea eta kontrolatzea.
- Gainerako elkarteekin federatzea edo konfederatzea edo haietakoren batetik ateratzea.
- Ondasun higiezin erabilera edo besterentzea onestea.
- Halakorik bada, gobernu-organoko kideen ordainsariak erabakitzea.
- Ohiko kuotak eta kuota bereziak zehaztea, nahiz eta batzar nagusiak ahalmen hori gobernu-organoen esku utz dezakeen, erabaki adieraziaren bidez.
- Elkartekideek elkartea behin betiko utzarazteko erabakia hartzea.
- Elkartearen funtzionamendurako bazkideek egin beharreko ekarpen ekonomikoak finkatzea.
- Zerbitzu komunak sorrera eta kudeaketa onartzea.
- Beste gizarte-organoren bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua- Saio arruntetan eta ezohiko saioetan bilduko da batzar nagusia.

9. artikulua- Honela deitu beharko da batzar nagusira:

- Ohiko saioa: gutxienez urtean behin egingo da, 7.a, 7.b eta 7.c artikuluetan bildutakoak onartzeko.
- Ezohiko batzarra: presidenteak egingo du beti deialdia, gobernu-batzordearen oniritziarekin.
- Kideen herenak eskatuz gero: bileraren arrazoiak eta helburuak aurrez jakinarazi beharko zaizkio zuzendaritza-batzordeari, hark gai-zerrenda osatzeko. Gehienez ere hilabeteko epean egingo da batzarra, eta kasu guztietan, gai hauei lotutako kontuen berri izateko edo gai hauei lotutako erabakiak hartzeko izango da:
 - a) Aldaketak estatutuetan.
 - b) Elkartea desegitea.

10. artikulua- Ezohiko batzar nagusira zuzendaritza-batzordearen aurkako zentsura-mozio baten harira deitzen denean, hau izango da prozedura:

- Mozio aurkezten denean elkarteko bazkide diren kazetarien %25ek egin beharko dute gutxienez eskaera, eta zuzendaritza-batzordeak egingo du batzar horretarako deia.
- Mozioak aurrera egiteko, mozioa aurkezten denean elkarteko kide direnen bi herenek onartu beharko dute.
- Batzar horretan, bozketako botoak beti zuzenean emango dira, eta sekretuak izango dira; hau da, ez dira onartuko posta bidezko botoak eta botoak ezingo dira eskuordetu.
- Zentsura-mozioak aurrera eginez gero, jarduneko izatera pasako da zuzendaritza- batzordea, eta batzar horretan bertan deituko da hauteskundeetara.

11. artikulua- Idatziz egingo dira batzar nagusien deialdiak, batzarraren lekua, eguna eta ordua adieraziz eta behar bezala zehaztuz gai-zerrenda eta jorratu beharreko gaiak. Deialdia egiten denetik batzarraren lehen deialdira bitartean, gutxienez, bost eguneko tarteak egon beharko du. Beharrezkoa izanez gero, batzarra bigarren aldiz noiz bilduko den ere adieraziko da, eta gutxienez ordu erdiko tarteak egon beharko du lehen batzarretik bigarengora.

Batzar nagusiak, bai ohikoak bai ezohikoak, behar bezala osatutzat emango dira lehen deialdian boto-eskubidea duten elkartekideen herena bertaratutakoan, edo bestela, bigarren deialdian, bertaratutakoen kopurua edozein denean.

12. artikulua- Bertaratutakoen eta ordezkaturakoen gehiengo soiluz hartuko dira erabakiak batzar nagusian, hau da, baiezko botoak edo ezezkoak diren nagusi ikusiko da. Alabaina, kasu hauetan, bertaratutakoen eta ordezkaturakoen gehiengo absolutua eskatuko da (erdiak + 1).

- Elkartea desegiteko.
- Estatutuak aldatzeko.
- Ondasunen erabilera eta besterentzea onartzeko.
- Ordezkaritza-organoko kideen ordainketetarako.

13. artikulua- Bazkideek aukera izango dute batzarrerako beste edozein bazkideren esku uzteko beren ordezkaritza. Ordezkatzeko eskaera hori idatziz egingo da, eta idazkariaren esku egon beharko du batzarra hasi aurretik. Elkartearen egoitza soziala dagoen hirian bizi ez diren bazkideek postaz bidali ahal izango dute ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua- Zuzendaritza-batzordea elkartearen interesak ordezkatzeko eta kudeatzeko dituen ordezkaritza-organoa da, eta helburu nagusitzat du estatutu hauetan jasotako nahiz batzar nagusian onartutako xedapenak eta zuzentarauak betetzea eta betearaztea. Helburu hori gauzatzeko, beharrezkoak iruditzen zaizkion egitasmoak egingo ditu, eta haien berri emango dio batzar nagusiari.

Batzar nagusiari dagozkion esleipenei kalte egin gabe, zuzendaritza-batzordeak ahalmen osoa izango du elkartearen ondarea administratzeko; alabaina, ondasunak besterentzeko, batzar nagusiaren oniritzia beharko du aurrena.

Elkarteko kideek soilik egon ahal izango dute ordezkaritza-organoan.

Zuzendaritza-batzordea hauek osatuko dute:

- Presidenteak
- Presidenteordeak
- Idazkari nagusiak
- Diruzainak
- Batzordekideak (gehienez zazpi)

Elkartea ahalik eta ondoen gobernatzeko, zuzendaritza-batzordeak batzorde iraunkor bat sortuko du bere baitan, eta presidenteak, presidenteordeak, idazkariak eta diruzainak osatuko dute batzorde hori. Elkartearen helburuak ahalik eta ondoen garatzeko, unean-unean beste batzorde batzuk ere sortuko dira.

Gutxienez hilean behin bildu beharko du batzorde iraunkorrak. Hark hartutako erabakiak zuzendaritza-batzordeak berretsi beharko ditu aurreneko bileran. Zuzendaritza-batzordeak aukera izango du saioetara gonbidatzeko legez osatutako sektore jakin batzuetako edo espezializatutako talde edo elkarteak. Gonbidatutako talde horiek iritzia eman ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

15. artikulua- Zuzendaritza-batzordeko kideak kargugabetu egingo dira baldin eta arrazoirik eman gabe hiru aldiz jarraian huts egiten badute deitutako bileretara edo jarraian ez diren bost bileretara huts egiten badute.

16. artikulua- Zuzendaritza-batzordea osatuko duten kargudunak isilpeko bozketa bidez hautatuko ditu batzar nagusiak, eta **4 URTEKO IRAUPENA** izango dute. Esanbidezko ezeztapenak izango dira salbuespena. Kasu horietan, kideak berriro hautatzeko aukera egongo da.

17. artikulua- Zuzendaritza-batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibilen erabilera osoa izatea eta indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.
- Estatutuen jartzen duen moduan izatea izendatua.
- Elkarteko bazkide izatea.

18. artikulua- Batzar nagusiak hautatu ondoren, kargua onartzen duenean edo hartaz jabetzen denean bihurtuko da elkartekidea zuzendaritza-batzordeko kide.

Beharrezkoa irudituz gero, batzar nagusiak dietak jarri ahal izango ditu zuzendaritza-batzordeko kideen gastuetarako.

19. artikulua- Zuzendaritza-batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- Agintaldia amaitutakoan.
- Dimisioa emandakoan.
- Bazkide izateari utzitakoan edo ezintasun-egoeraren bat etorritakoan.
- Estatutu hauetako 16. artikuluekin bat etorriz, batzar nagusiak hala erabakitakoan.
- Hildakoan.

Kargua utzi behar izateko arrazoia agintaldia amaitu izana denean (a), zuzendaritza-batzordeko kideek jardunean jarraituko dute hurrengo batzar nagusia egin artean. Batzar horretan hautatuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) kasuetan, zuzendaritza-batzordeak berak izendatuko du norbait, behin-behinean, hutsik geratutako kargurako. Ondoren, batzar nagusiak erabaki beharko du erabaki hori berretsi edo atzera bota. Atzera botatzea erabakiz gero, kargua beteko duen pertsona izendatuko da. Zuzendaritza-batzordearen osaketan egindako aldaketa guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

20. artikulua- Hauek dira zuzendaritza-batzordearen egitekoak:

- Elkartearen eguneroko kudeaketa zuzentzea, batzar nagusiaren zuzentzauekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- Elkarrekin garatu beharreko jarduerak programatzea.
- Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua nahiz aurreko urteko kontuen egoera aurkeztea batzar nagusiari, hark onartzeko.
- Batzar nagusiaren bileren gai-zerrenda prestatzea eta batzar nagusien (ohikoena nahiz ezohikoena) deialdiak adostea.
- Bazkideek egindako proposamen eta iradokizunei jaramon egitea eta haiei erantzuteko beharrezko neurriak hartzea.
- Estatutu hauetan bildutako aginduak interpretatzea eta ikusten diren hutsuneak betetzea, elkartearen arloan indarrean dagoen legediarekin bat etorriz beti.
- Zuzendaritza-batzordearen eskumen eskusibokoak ez direnean, batzar nagusiak esleitutako eskumenak betetzea.

21. artikulua- Gutxienez bi hilabete behin bilduko da zuzendaritza-batzordea, eta presidentek erabakitako aldi guztietan, bai ekimen propioz, bai kideen herenak eskatuta. Presidenteak zuzenduko du bilera, eta hura ez dagoenean, presidenteordeak. Biak falta badira, batzordeko kide zaharrena izango da bilerako buru.

Batzordearen erabakiak baliokoak izateko, bertaratutako botoen gehiengo soila aski izango da, baina kideen erdian presentzia beharko da. Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoa izango da

erabakigarria. Idazkariak idatziko du saioko akta, eta dagokion liburuan transkribatuko du.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTEA

22. artikulua- Elkarteko presidentek bere gain hartuko du elkartearen lege-ordezkaritza, eta zuzendaritza-batzordeak eta batzar nagusiak hartutako akordioak beteko ditu, haien buru izango baita hurrenez hurren.

23. artikulua- Eskumen hauek izango ditu presidentek:

- Zuzendaritza-batzordearen eta batzar nagusien saioretara dei egitea eta haien amaitutzat ematea; bataren eta bestearen saiok zuzentzea; eta kalitateko botoa ematea berdinketa dagoenean.
- Elkartearen jarduera-plana proposatzea zuzendaritza-batzordeari, eta haien sustatzea eta zuzentzea.
- Elkartea ordezkatzeko erakunde publiko eta pribatuaren aurrean eta auzitegietan.
- Behar bezala adostutako ordainketak agintzea.
- Sor daitezkeen presazko kontuetan erabakiak hartzea eta haien berri ematea zuzendaritza-batzordeari aurreneko bileran.
- Bideratu beharreko txosten eta jakinarazpenak baimentzea.
- Batzar nagusiak, zuzendaritza-batzordeak eta batzorde iraunkorrak egindako akordioak betetzea.
- Zuzendaritza-batzordearen lana zuzentzea eta koordinatzea; elkartearen zereginak ahalik eta ondoen betetzeko, beharrezkoak diren batzordeak eta txostenak sortzea; organo horiek zuzentzeaz arduratuko diren zuzendaritza-batzordeko kideak aukeratzea.
- Idazkari nagusiak edo diruzainak igorritako ordain-aginduei, kargei eta ziurtagiriei oniritzia ematea.
- Batzar nagusiak esanbidezko adostasunez esleitutako eskumenak betetzea, non eta ez diren haren eskumen eskusibokoak.

Zuzendaritza-batzordeak aztertu ondoren, presidentek presidenteordeari edo zuzendaritza-batzordeko kideren bati eskuordetu ahal izango dizkio hainbat zeregin.

PRESIDENTEORDEA

24. artikulua- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta hura ordezkatzeko du kargua betetzeko aldi baterako ezintasun-kasuetan. Era berean, presidentek espresuki eskuordetzen

dizkion eskumen guztiak hartuko ditu bere gain.

IDAZKARI NAGUSIA

25. artikulua- Hauek dira idazkariaren egitekoak: elkartean sartzeko eskaerak jasotzea eta tramitatzea; bazkideen fitxategiaz eta erregistro-liburuaz arduratzea; eta batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen akta-liburuan idaztea eta haiek jagotea. Era berean, elkartean arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzen direla zainduko du. Horretarako, elkartearen dokumentu ofizialak zainduko ditu; liburu eta gizarte-artxiboetako edukiak ziurtatuko ditu; eta eskumena duen agintaritza-erakundeari bideratuko dizkio zuzendaritza-batzordeko izendapenei eta helbide sozialaren aldaketei buruzko jakinarazpenak.

DIRUZAINA

26. artikulua- Hauek dira diruzainaren egitekoak: izandako diru-sarrerak eta egindako ordainketak jakinaraztea; diru-sarrerak eta gastuak kontuan hartuta, urteko aurrekontua prestatzea; aurreko urteko kontuen egoeraren berri ematea zuzendaritza-batzordeari, aldi berean, batzar nagusiaren esku jar dezan hark, oniritzia emateko; elkartearen funtsak zaintzea; ordainketa-aginduak igortzea eta egindako ordainketak arrazoitzea (presidentearen oniritzia beharko dute); zuzendaritza-batzordeak funtsak edukitzeari, gordetzeari edo esku hartzeari buruz hartutako erabakiak betetzea; eta azkenik, elkartearen kontabilitatea antolatzea eta zaintzea. Bere eskumenak murriztu gabe, eta zuzendaritza-batzordeak oniritzia emanaz gero, diruzainak aukera izango du idazkari nagusiari eskuordetzeko egiteko batzuk, baldin eta horrek elkartearen antolaketa ona errazten badu.

BATZORDEKIDEAK

27. artikulua- Zuzendaritza-batzordeko kide diren heinean, karguari propio dagozkion betebeharrak dituzte batzordekideek (elkartearen zuzendaritza eta eguneroko kudeaketa), baita zuzendaritza-batzordeak eta presidenteak agindutakoak ere.

PRESIDENTETZAREN AHOAKULARITZA BATZORDEA

28. artikulua- FAPEn 30 urte baino gehiagoko antzinasuna duten elkartekideek eta 80 urtetik gorakoek presidentetzari aholkuak emango dizkiote hark galdetutako kontuetan. Gutxienez urtean behin bilduko da batzorde hori.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA **ETA MOTAK**

29. artikulua- ASOCIACIÓN VASCA DE PERIODISTAS (AVP) - EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEKO (EKE) kide izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabide edo enpresetan lan egiten duten kazetariak edo autonomia-erkidegoarekin lotura duten kazetariak, hau da, erresidentzia han izan arren, aldi baterako atzerrian bizi direnak eta FAPEn Kazetarien Erregistro Ofizialean izana emanda daudenak, unean-unean hark eskatzen dituen baldintzak betez.

30. artikulua- Elkarteko kide izan nahi dutenek idatziz egin behar diote eskaera presidenteari. Hark eskaeraren berri emango dio zuzendaritza-batzordeari, eta batzorde horrek erabakiko du onartu edo ez onartu. Gora jotzeko errekurtoa aurkezteko aukera egongo da batzar nagusian.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

31. artikulua- Elkartekide guztiek eskubide hauek dituzte:

- Elkarteei buruzko Legearen aurkako eta estatutu hauen aurkako akordio eta jokaerak inpugnatzekoa. 40 egun naturaleko epea egongo da horretarako, inpugnazioa jarri nahi duenak akordioaren berri izan duenetik edo akordioaren berri izateko aukera izan duenetik hasita.
- Gobernu-organoen osaketari, elkarteren ordezkartzari, kontuen egoerari eta jardueren garapenari buruzko informazioa izatekoa.
- Edozein unetan elkarteko gainerako kideak nor diren, diru-sarrera eta gastuei dagokienez kontuen egoera zein den eta elkarteren jardueren garapena nolakoa den jakitekoa, datu pertsonalen babeserako araudia urratu gabe.
- Batzar nagusietara deitua izatekoa, haietara joatekoa eta batzarretan hitza hartzekoa eta botoa ematekoa. Ordezkartza beste elkartekide batzuegan eskuordetzeko aukera ere egongo da.
- Estatutu hauekin bat etorritik, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzekoa, bai hautesle izanez, bai hautagai izanez.
- Indarrean dagoen legedian aurreikusi bezala, bazkideen fitxategian egotekoa, eta edukiz gero, elkarteren enblema erabiltzekoa.
- Estatutuen eta barne-araudiaren (egonez gero) ale bat edukitzeko, eta zuzendaritza-organoei eskaerak eta kexak aurkezteko.
- Ekitaldi sozial kolektiboetan parte hartzekoa eta bazkide guztien erabilerara bideratutako elementuez baliatzekoa (egoitza soziala, liburutegia eta abar).
- Estatutu hauetan jartzen duenarekin bat etorritik, lanbidean babestua izatekoa.
- Komenigarriak iruditutako egitasmo guztiak aurkezteko, bai zuzendaritza-batzordeari, bai batzar nagusiari.

- Diziplina-neurriren bat hartu aurretik idatziz entzuna izatekoa, eta neurri horiek zergatik hartu nahi diren jakitekoa. Elkartekide izateak dituen betebeharrak ez betetzeagatik soilik hartu ahal izango dira diziplina-neurriak.
- Edozein unetan baja ematekoa, kalterik egin gabe hartutako eta artean bete gabeko konpromisoai.

32. artikulua- Betebehar hauek dituzte bazkideek:

- Elkartearen helburuak partekatzea eta haiek lortzen laguntzea.
- Estatutu hauekin bat etorritz, bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta gainerako ekarpenak ordaintzea.
- Estatutuetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.
- Elkarteko gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

33. artikulua- Bazkide izaera galduko da kasu hauetan:

- Hildakoan edo, egonez gero, pertsona juridiko hori desegindakoan.
- Borondatez, zuzendaritza-batzordeari idatziz jakinarazitakoan.
- Zehapenagatik baztertutakoan, espediente egokiarekin. Kasu hauetan ezarri ahal izango dira zehapenak: estatutu hauetan finkatutako betebeharrak edo batzar nagusiak eta zuzendaritza-batzordeak behar bezala hartutako erabakiak larriki, behin baino gehiagotan eta nahita urratutakoan.
- Hiru hilabeteen jarraian kuotak ez ordaindutakoan. Elkartekideak kuotak sei hilabeteen behin edo urtean behin ordaintzea erabakitzen badu, aski izango da haietako bat ez ordaintzea. Kasu guztietan, hilabete epea egongo da zorra ordaintzeko. Hilero ordaintzea aukeratuz gero, hirugarren kuota ordaintzeko abisua ematen denetik hasiko da kontaketa.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

34. artikulua- Zuzendaritza-batzordeak zehapenak ezarri ahal izango dizkie elkartekideei kasu hauetan:

- Estatutuak edo batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen akordioak behin eta berriz urratutakoan.
- Lanbidearen ohorearen aurka egiten duten ekintza edo huts-egiteengatik.
- Kazetaritza-jarduera garatzerakoan, edo motibo horrekin, lanbide-deontologian finkatutako betebehar profesionalak urratutakoan.

Honelakoak izan daitezke zehapenak:

- Ohartarazpen pribatua, idatziz.
- Ohartarazpen publikoa.
- Behin-behinean eskubide batzuk edo guztiak etetea.
- Elkartetik botatzea (hurrengo artikuluetan ageri dira zergatiak).

Zigortzeko modukoak izan daitezkeen jokabideak argitzeko, ikerketa bat hastea erabaki dezake presidenteak. Idazkariak eramango du aurrera prozesua, instrukzio-organo moduan, eta hartu beharreko neurriak proposatuko dizkio zuzendaritza-batzordeari. Zehapenak ezartzeko ahalmena zuzendaritza-batzordeak izango du, idazkariaren parte-hartzerik gabe (instrukzio-organoa izateagatik). Zehapena ezarri aurretik, entzun egin beharko zaio pertsona horri. Erabakiaren aurkako errekurtsua jarri ahal izango da batzar nagusian, arrazoiak jakinaraziz.

35. artikulua- Presidenteak aurretiazko eginbideak hasteko agindu ahal izango dio idazkariari baldin eta bazkide bat elkartetik apartatzen bada. Apartatzeko arrazoiak hauek izan daitezke: estatutu hauetan bildutakoak edo batzar nagusiak eta zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriro ez betetzea, nahita ez betetzea edo huts-egite larriak egitea. Eginbide horren emaitzak ikusita, kasua artxibatzeke eskatu ahal izango du presidenteak, edo bestela, apartatzeko espediente zehatzaileari hasiera eman ahal izango dio.

36. artikulua- Apartatzeko zehapen-espedientea abiatzea erabakiz gero, idazkariak, gertatutakoak egiaztatu ostean, idatzi bat bidaliko dio pertsona interesatuari. Idatzi horretan, zein kargu egozten zaizkion jarriko du. Hark 15 eguneko epea izango du bere burua babesteko egokiak iruditzen zaizkion arrazoiak emateko. Epea amaitu ostean, zuzendaritza-batzordearen hurrengo saioko gai-zerrendan sartuko da gaia, eta batzorde horrek erabakiko du zer egin. Idazkariak ezingo du botorik eman, espedientearen instruktorea izango delako.

Apartatzeko erabakia pertsona interesatuari jakinaraziko zaio, eta esango zaio erabakiaren aurkako errekurtsua jarri ahal izango duela hurrengo ezohiko batzar nagusian. Batzar horretara ez bada deitzen hurrengo hiru hilabeteetan, gai hori jorratzeko soilik deitu beharko da. Bien bitartean, zuzendaritza-batzordeak erabaki dezake erruduntzat jotako pertsona horri bazkide izateak dituen eskubideak etetea; zuzendaritza-batzordeko kidea bada, berriz, kargutik kenduko da.

Apartatze-espedientea batzar nagusira eramatea erabakiz gero, idazkariak espedientearen laburpen bat idatziko du, zuzendaritza-batzordeak batzar nagusiari jakinarazteko erruduntzat jotako pertsonak aurkeztutako idatzia eta gertatutakoen berri behar bezala emateko. Batzarrak erabakiko du zer egin.

37. artikulua- Apartatze-erabakia, beti arrazoitua izango dena, jakinarazi egin beharko zaio pertsona interesatuari. Hark, erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa dela uste duenean, helegitea jarri ahal izango du auzitegitan, dituen eskubideak gauzatu.

38. artikulua- Bazkide bati elkartetik apartatu dela jakinarazten zaionean (bai hala eskatu duelako, bai zehapen baten ondorioz), elkaratearekiko bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

ONDARE SOZIALA ETA AURREKONTUEN ARAUBIDEA

39. artikulua- ASOCIACIÓN VASCA DE PERIODISTAS (AVP) – EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEAK (EKE) hamasei bila bostehun eta laurogeita hamabi koma hogeita lau euroko (16.592,24€) diru-saldoa du bankuan gaur-gaurkoz.

“Horiek dira batzar honen egunean elkarteak eskura dituen baliabide ekonomikoak”.

40. artikulua- Gizarte-jarduerak garatzeko elkarteak aurreikusten dituen baliabide ekonomikoak hauek dira:

- Ondare ekarpenak.
- Adosten diren aldian behingo kuotak.
- Igortzen diren ziurtagiri, baimen eta inskripzioen zenbatekoak.
- Dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak nahiz legez jaso ahal izango dituen diru-laguntza, herentzia eta dohaintzak.
- Zuzendaritza-batzordearen erabakiz gauzatutako jardueretatik lortutako diru-sarrerak. Jarduera horiek beti bat etorri behar dute elkartearen estatutuekin.

Elkartearen urtealdia eta urtealdi ekonomikoa urte bakoitzeko **abenduaren 31n** amaituko dira, egutegiko urtea bezala.

Jarduera ekonomikoetatik lortutako etekinak (zerbitzuak ematek eratorritakoak barne) elkartearen helburuetara bideratu ahal izango dira soil-soilik. Inondik inora ez da aukerarik egongo bazkideen artean banatzeko, ezta haien ezkontide, afektibitate-maila bereko bizikide eta ahaideei banatzeko ere. Era berean, etekin horiek ezingo zaizkie doan utzi irabazi-asmok dituzten pertsona fisiko eta juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ELKARTEAREN KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA

HAUTESKUNDEAK

41. artikulua- Eskubide osoko bazkide direnek eta kuoten ordainketak eguneratuta dituztenek zuzendaritza-batzordeko kide guztiak aukeratzeko eskubidea dute. Bozketa zuzeneko eta sekretua izango da, eta lau urteko agintaldirako hautatuko dira kideak. Mugarik gabe aukeratu ahal izango dira berriro.

42. artikulua- Arau hauek izango dituzte zuzendaritza-batzorderako hauteskundeek:

- Gutxienez agintaldia amaitu baino eta hauteskunde-eguna baino 30 egun lehenago egingo du zuzendaritza-batzordeak hauteskundeetarako deialdia. Data, ordua eta tokia jakinaraziko ditu, eta estatutuen arabera hauteskunde-prozesuari dagozkion epeak jakinaraziko ditu.
- Hauteskundeetara deitutakoan, elkarteko idazkaritzan aurkeztu beharko dira kargu guztietarako edo kargu batzuetarako hautagai-zerrendak, hauteskundeak egin baino 15 egun lehenago.
- Hautagai-zerrendarekin batera, zerrendan ageri diren kide guztien oniritzia aurkeztu beharko da, eta gutxienez 10 elkartekideren bermea beharko du zerrendak. Inork ezingo du hauteskunde-zerrenda bat baino gehiagotan egon.
- Hautagaiak aurkezteko epea amaitutakoan eta dokumentuak aztertutakoan, batzordeak egun horretan bertan jakinaraziko du zein diren hautagaiak eta haien berri emango die elkartekide guztiei.
- Hauteskunde-mahaia osatuko da hauteskundeetarako, eta elkartean antzinasun handiena eta txikiena duten kideek osatuko dute, edo bestela, bertaratutakoan artean antzinasun handiena eta txikiena dutenek.
- Ezkutuko bozketa bidez egingo dira hauteskundeak. Boto-paperetan agertuko dira onartutako hautagai guztiak.
- Zerrenda irekien sistema erabiliko da hauteskundeetan.
- Botoa aurrez emateko aukera egongo da (egoitzan), eta beharrezko baldintzak beteko dira sekretua izan dadin bermatzeko.
- Bozketa amaitutakoan, hauteskunde-mahaiak berehala zenbatuko eta jakinaraziko ditu emaitzak; ondoren, ekitaldi horretan bertan hartuko dute kargua hautatuak izan direnek.

43. artikulua- Hautagai-zerrenda bakarra aurkeztuz gero, onartutakoan, hautatutako hautagaitza-izaera hartuko du.

44. artikulua- Estatuetan zehaztutako agintaldian zehar zuzendaritza-batzordeko karguren bat hutsik geratuz gero, hauteskunde partzialak egingo dira hiru hilabeteko epean.

Artikulu honen arabera hautatzen den pertsonaren agintaldia ere zuzendaritza-batzorde osoaren agintaldia amaitzen denean amaituko da.

SEIGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

45. artikulua- Propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar nagusian onartu beharko da estatutuak aldatzea; zuzendaritza-batzordeari dagokio aldaketa horien gaineko ekimena, edo bestela,

bazkideei. Ekimena bazkideena izanez gero, proposamena egiten den unean erroldan dauden bazkideen herenak babestu beharko dute gutxienez aldaketa-eskaera.

Zuzendaritza-batzordeak batzorde txostengile bat izendatuko du, hiru pertsonakoa. Horiek idatziko dute aldaketa-proiektua, batzordeak emandako ildoari jarraituz eta proiektua amaitzeko emandako epea betez.

46. artikulua- Emandako epean aldaketa-proiektua idatzi ostean, presidentek zuzendaritza-batzordearen hurrengo saioko gai zerrendan sartuko du. Zuzendaritza-batzordeak onartu egingo du edo batzorde txostengileari itzuliko dio, berriro aztertzeko. Onartuz gero, hurrengo ezohiko batzar nagusiko gai-zerrendan sartuko du batzordeak.

47. artikulua- Batzarrerako deialdiarekin batera, estatutuak aldatzeko testua sartuko da, bazkideek aukera izan dezaten beharrezko iruditutako zuzenketak bideratzeko idazkariari. Batzar nagusiari zuzenketa horien berri eman ahal izateko, saioa egin baino zortzi egun lehenago jaso beharko ditu idazkariak. Zuzenketak banaka nahiz taldean formulatu ahal izango dira, eta idatziz bidali beharko dira, beste testu bat ere proposatuz. Zuzenketen gaineko bozketa egin ostean, batzar nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du. Aldaketa horrek Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen den unetik aurrera bakarrik izango ditu ondorioak hirugarrenei dagokienez.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALA

48. artikulua- Elkartearen kasu hauetan desegingo da:

- Bazkideen borondatez. Erabaki hori hartzeko deitutako ezohiko batzar nagusian adieraziko dute nahi hori.
- Estatutuaren finkatutako epe edo baldintzak betetakoan.
- Beste elkarteren batek barne hartutakoan edo beste elkarteren batekin bat egindakoan.
- Legez ezarritako gutxienezko bazkide kopurura ez iritsitakoan.
- Desegiteko esaten duen epai judizial irmo bat dagoenean.
- Helburu sozialak betetzeko gaitasun faltagatik.

49. artikulua- Elkartearen desegitea erabakiz gero, desegite hori erabakitzen duen ezohiko batzar nagusiak likidazio-batzorde bat izendatuko du, eta hura arduratuko da dauden funtsez.

Behin bazkideen eta hirugarren pertsonen aurreko gizarte betebeharrak betetakoan, geratzen den ondarea (geratuz gero) irabazi asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi asmorik gabeko helburuak dituen erakunde bati emango zaio.

AMAIERAKO XEDAPENA

Batzar nagusiak barne-araudi bat onartu ahal izango du estatutu hauek garatzeko. Araudi horrek inondik inora ezingo ditu urratu estatutu hauetako aginduak.